

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Lehen ezan bezala gure enpresak ikasi eta lana egin nahi dutenei lagundu egiten die. Beraz bi segmentu desberdinetara dago bideratuta enpresa hau. Alde batetik, ikasi eta lana egin nahi duten ikasleentzat, eta bestetik, ikasketak amaitu eta langabezian daudenentzat.

Gure kuota ordainduko dutenak gehienbat 16 eta 24 arteko gazteak izango dira. Adin haietan gehienak ikasten egoten direlako. Baina edozein adineko jendeak izango du kidea izateko aukera. Batzuetan jendeak bizitzaren beste etapa batzuetan ikasi nahi izaten duelako. eta gure enpresa edozein adineko ikasleentzako ateak irekiak ditu.

Espainia mailan edozein ikasle ahalko da harpidetu gure enpresa honetara, bertako edozein probintziatik. Eta ondo funtzionatzen badu, beste herrialde batzuetara zabalduko gara haiei ere laguntzeko. Honela ahalik eta jende gehiago ahalko dugu lagundu, hori da gure helburua.

Amaitzeko, formakuntza ere eskainiko genuke Ikaslanen, beraz, formakuntza bat egin duen gizartearen segmentuari bideratuta dago gure enpresa.

